



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

euskaraz
bizi nahi
dugu!

SARIA:
Lesakako
BEKO mintegian
60 euroko
erosketa

2015eko APIRILA 142. ALEA

IZENAK IZAN

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK

25
urte



Bortzirietako Euskararen Mankomunitatearen 25. urteurrena dela eta, Pello Apezetxea Zubiri ekarri dugu elkarrizketa honen bidez. Pello Apezetxea, Etxalarko apezka, hainbat libururen egile, ohorezko Euskaltzain eta horretaz gain, Bortzirietan Euskararen berreskuratze eta sustatze lanetan hasieratik hainbertze aritu, ari eta ariko dena; izan ere, Mankomunitatearen sorreran ere bertze hainbertzerekin batera buru belarri aritu baitzen.


Nolatan eta nondik sortu zen orain dela 25 urte Bortzirietan Euskararen Mankomunitatea?

Erran genezake euskararen aldeko mugimenduak bultzatuta sortu zela. Kontuan izan, ordurako ikas-tola eta gau eskolak martxan zirela (gauzez eta ia borondatez, bertze lan bat egiten zutenak eta hura bukatzean gauzez helduei euskara irakasten herriko eskolan edo elizaren babespean, inolako kontratu eta babesik gabe aritzen ziren), Ttipi-Ttapa ere bai, eta garai hartan herritarrek, orokorrean, euskara ikasteko ilusioa eta alfabetatzeko gogo handia zuten. Lanerako zela, euskalduna izan eta alfabetatu nahi zuelako, haurrak euskaraz ikasten ari zirelako; arrazoi anitz ziren. Hau dena zela eta, gau eskolak egituratzeko, euskara bera bultzatzeko eta indartzeko lana eta dirua behar zelako udaletara jo genuen eta haiek jarrera ona izan zuten. Garai hartan euskararekiko jarrera ona izan zela erran liteke, bai udalerrietan, eta baita Gobernuan ere.

Nola gauzatu zen?

Herri bakoitzean bilerak egin ziren, jende mukuru ederrak bildu ziren (Etxalarren berrogei lagun bildu izan ziren) eta horren ondorioz poliki-poliki gauzatzen joan zen gero Euskararen Mankomunitatea izanena zena. Estatutuak egin ziren denen artean, horretarako herritarrek zein ordezkari politikoei parte hartu zuten. Eta nork gidatuko zuen? Zein antolaketa izanena zuen? Hasieran bortz herrietako zazpi ordezkari politikoei eta bertze zazpi herritar soilez osatu nahi izan zen talde erabakitzailea; legeak, ordea, ez zuen hori baimentzen eta azkenean, bortz herrietako zazpi ordezkari (bina Lesakatik eta Beratik eta bana bertze hiru herrietatik) osatu zen mahai erabakitzailea, eta bertze zazpi herritar soilez osatutako Aholkulari batzordea ere bai. Horretaz gain, herri bakoitzeko batzordeak ere antolatu ziren.

IZENAK IZAN



Pello Apeztexea

Nola aldatu da euskararen egoera 25 urte hauetan?

Mankomunitatea sortu zenean, erran bezala ilusioa handia zen, eta udaletatik euskarara bideratutako dirua hagitz garrantzitsua izan zen GAUESKOLA EUSKALTEGI bihurtzeko. Eta ezin ahanzi Gobernuak ere orain ez bezala Euskaltegiei diru laguntza bideratzen ziela. Horrek bide eman zuen lan talde finko bat osatzeko eta klaseak goiz, arratsalde eta gauz eman ahal izateko eta lanean duin aritzeko aukera. Helduak euskaldundu eta alfabetatu dira eta haurrak eskoletan ere euskaldundu dira, Ttipi-Ttapa aldizkaria eta telebista ere izan dugu, eta Xorroxin irratia ere hor dugu; beti ere, udalen babesarekin. Administrazioa ere euskaldundu eta alfabetatu da, horrek guztiak Euskarari eman dion bultzada handia agerian dela uste dut. Honek guztiak erakusten digu zeinen garrantzitsua den administrazioaren laguntza eta babesa euskarak aitzinera egin eta prestigioa izan dezan.

Gaur egun naturala iruditzen zaiguna, haurrak, gazteak, helduak, bertakoak zein kanpokoak euskaraz aritzea, edozein tokitan euskaraz aritzea eta entzutea, ez pentsa duela 25 urte horrela zenik; beraz, Euskararen Mankomunitateak izugarrizko lana eta eragina izan duela erran genezake.

Gaurko egoera ikusita, lasai gintezke?

Ez, ezin gara lasaitu. Batzuetan ematen du dena egina dela eta lortu delakoan lasaitzen ahal garela. Egitura badugu, eskola euskaldunduta dago, Euskaltegia badugu, Ttipi-Ttapa, Xorroxin eta Xaloe telebista ere bai. Eta kitto? Ez bada, belarria pixka bat jarrita ohartuko gara orain ere zenbait euskalduna izan arren gaztelaniaz ari dela, haurrak ere karrikan gaztelaniaz mintzatzen hasi direla, etb 3 ikusterik ez dutela eta gaztelaniazko marrazkiak ikusten dituztelako izan liteke, eragin handia baitu horrek ere. Hala ere, haurrak euskaldunak direlako, hainbat gurasok ez du bere burua euskaldundu beharrik ikusten eta haiengan uzten du geroa. Gobernuak diru laguntza guztiak kendu dizkigu, umezurtz utzi gaitu, Ttipi-ttapa telebista ere ez dugu.

Horra hor zenbat arrazoi erne egon eta lanean aritzeko.





Zenbakiak: 100 - 1.000

Ehunetik milara bitarteko zenbakiak honako eskemaren arabera eratzen dira:

(ehunekoak) **ETA** (batekoak)

Hona hemen zenbait adibide:

101 ehun eta bat

127 ehun eta hogeita zazpi

240 berrehun eta berrogei

Nahiz eta horrela idatzi, ahoskatzerakoan TA edo DA egiten dugu.

Zenbakiak: 1.000 - 1.000.000

Milatik gorako zenbakiek honako eskemari jarraitzen diote:

(milakoak) MILA (ehunekoak) **ETA** (batekoak)

Ehunekoak eta hamarrekoak agertzen direnean, **mila**-ren ondorengo **ETA** ezabatu egiten da birritan ez errepikatzeko. Adibidez:

1.123 MILA ehun eta hogeita hiru

5.456 bost MILA laurehun eta berrogeita hamasei

26.671 hogeita sei MILA seihun eta hirurogeita hamaika.

Hala ere, ehunekoak edo hamarrekoak (bietako bat) kentzen direnean, mila-ren ondotik **ETA** jarri behar da. Adibidez:

1.200 MILA **ETA** berrehun

7.020 zazpi MILA **ETA** hoge

8.400 zortzi MILA **ETA** laurehun.

**Orain, zure txanda! Goian ikusitakoaren arabera, zein dago ongi idatzita?
Azpimarra ezazu.**

- 1- **A)** Mila bederatziehun euro - **B)** Mila eta bederatziehun euro.
- 2- **A)** Hiru mila eta bostehun libera - **B)** Mila bostehun libera.
- 3- **A)** Bi mila hamabi urte - **B)** Bi mila eta hamabi urte.
- 4- **A)** Mila zazpiehun eta hoge - **B)** Mila eta zazpiehun eta hoge.
- 5- **A)** Bi mila eta hamabigarren urtean - **B)** Bi mila hamabigarren urtean.
- 6- **A)** Zortzi mila bostehun eta hogeita zazpi - **B)** Zortzi mila eta bostehun hogeita zazpi.
- 7- **A)** Berrehun mila eta hoge - **B)** Berrehun mila hoge.
- 8- **A)** Ehun berrogeita sei - **B)** Ehun eta berrogeita sei.



BITXILOREAK

NAFARROAKO EUSKALGINTZAREN HISTORIATXOA

Gaueskolak, euskaltegiak, D ereduko ikastetxeak, ikastolak, euskara zerbitzuak, bertso eskolak, euskarazko hedabideak... Lan isila egiten ari dira euskararen normalizazioaren alde. Euskaltegi eta D ereduko ikastetxe eta ikastolen jarduera errebasatuz, alde argiak ikusten dira, baina zoritxarrez alde ilunak ____1____. Ea etorkizunak argitasuna, lege aldaketak eta diru-laguntzak ekartzen dituen!

IKAK 25 URTEKO IBILBIDEA

Gau-eskolak eta euskaltegiak: Bortziriak eta Malerrekan orain dela 30 urte sortu ziren. Leitzan eta Baztanen ordu-rako baziren jada. Garai hartan euskaraz idazten ikasteko beharra nabaritzen zen eta jendea kanpora joaten zen klaseak hartzera. Hori zela eta, gau-eskolak antolatu ziren eta izugarritzko jende pila hasi zen ____2____. 30 urte hauetan euskaltegiaren anitz ____3____ aldatu dira: egoitzak, irakaslerien prestakuntza, ikasleriaren profila... Orain dela 25 urte AEK koordinakundean emandako zatiketa baten ondorioz, Nafarroan eta Araban jarduera duen IKA koordinakundea sortu zen.

Diru-laguntzak direla eta, aipatu behar da Nafarroako Gobernuak 2004an hasi zuela euskaltegiak itotzeko kanpaina. Geroztik, 2005ean, heren batera jaitsi zen eta 2006an erdira baino gutxiagora. Azkeneko lau ikasturteotan Nafarroako diru-laguntzarik gabe gelditu dira, aurrekontuetan kopurua onartuta ____4____ arren. Ingurumari honetan Mendialdeko euskaltegiek bertako ____5____ egindako ekarpenari esker dira bizirik. Nahiz eta etorkizunari begira zalantzaz begiratu, ikasleak dauden bitartean urteak betetzen jarraitzeko prest (ikasleek ilusioa ematen baitute).

AEK-ren egoera ere ez da xamurra, eta horri aurre egiteko bi urtetik behin Korrika antolatzen du. Aurtengoa 19.a izanen da (Euskahaldun leloa izanik) eta Urepele Bilborekin lotuko du martxoaren 19tik 29ra ____6____ kilometro inguru eginda. Lehendabiziko korrika 1980an antolatu zen eta edizio hartatik zurez tailaturiko lekukoaren makila eta ikurriña gordetzen dira.

D eredua orain arte eremu euskaldunean soilik aukera ____7____ Nafarroako eskola publikoetan, baina aurtengo otsailean 18/1986 Euskararen Legearen aldaketa onartu ____8____, 2016-2017ko ikasturtetik aitzinera D eredua ez-euskalduna izendatzen duten eremura zabaltzeko ahal izanen da, eskaerarik baldin bada. Aldaketa hau anitzendako motz gelditzen da eta ikusi behar zer ratio paratzen den. Gurean, berriz, D eredua gaur egun nahiko osasuntsu badugu ere, gogoratu behar da zer lan egin zen hainbat ____9____ bere ezarpena lortzeko.

Beste aldetik, gogoratu behar da Nafarroan gaur egun badaudela 15 ikastola, eta, batez ere, Irunberri, Lodosa, Tafalla, Tuter, Viana eta Zangozako hainbat ____10____, euskaraz ikasi ahal izateko aukera bakarra dela.

Testuan dauden hutsuneak betetzeko, aukeratu baliokide zuzena.

ERNE SARIRAKO!

- | | | | | |
|--------------------------|----------------------|-----------------|-----------------|------------------------|
| 1.- a) ere | 2.- a) alfabetatzeko | 3.- a) gauza | 4.- a) dago | 5.- a) mankomunitateek |
| b) baita ere | b) alfabetatzen | b) gauz | b) dagoela | b) mankomunitateak |
| c) ere bai | c) alfabetatzea | c) gauzak | c) dagoen | c) mankomunitateei |
| 6.-a) bi mila hirurehun | 7.- a) ziteken | 8.-a) den ezker | 9.- a) herritan | 10.- a) familiendako |
| b) bi mila eta hirurehun | b) zukeen | b) denez gero | b) herrietan | b) familindako |
| c) bi mila ta hiruehun | c) zitekeen | c) denezkero | c) herrian | c) familiarendako |



BOTA BERTSOA!

IKAk 25 urte, Nafarroako euskara zerbitzuek bertze 25 urte... Ospakizun urtea dugu eta haus-narketarako urtea. Horra Julen Zelaietak Baztan-Bidasoa aldeko euskalgintzari eskainitako sei bertso mamitsu. Guk lauri oinak ebatsi eta beheko aldean nahasi ditugu. Bildu itzazu eta beren lekuan paratu.

1 Tarteka komeni zaigu
gogoeta egitea,
merituak aitortu ta
esker onak ____a____.
Begira Euskal herria
ta begira ____b____;
Txokoz txoko desberdina
Dugu ____c____.
Leku auniztan zaila da
Euskalduna ____d____.
Gurean mantendu bada
ez da kasualitatea

2 Gau eskolak sortu ziren
orain hiru ____e____.
IKAk ere hogeita bortz
urte bete ditu ____f____.
Hor daude Tantirumairu,
Baztan eta Labiaga,
urte luzetan gainditu
dituztenak mila ____g____.
D eredu zabalduz
herriko eskoletara,
euskaraz hezi ginenak
gaur, euskaraz bizi ____h____.

3 Zorionak, ere, Euskara
Mankomunitateari!
Maiatzean mende laurden
beteko ____i____.
Zenbat plan estrategiko,
diru laguntza ____j____,
material didaktiko,
udaleku ____k____,
Solaslagunak, Korrika,
kanpaina, saio, hitzaldi,...
Segi arnasa ematen
Gure ____l____! ____m____!

4 Hiru euskal hedabide
ditugu gure ____n____;
uhinetan, paperean,
telebistako ____o____...
Xaloea, Baztango eta
Malerrekako partean,
Xorroxin ta Ttipi-Ttapa
ezin utzi ____p____.
Informazio guzia
euskaraz den ____q____,
dena da beharrezkoa
leku euskaldun batean

5 Bertso eskolak herritan
errotu dira gaur egun,
nola hizkuntza lantzeko
aukera ematen digun.
Bat-batekotasunaren
sokaren gainean jardun,
ta hain sentitzen dugu gure,
hain herrikoi, hain euskaldun...
Hitzekin jolas eginez,
ta irudimena lagun,
Euskara doinu ta neurri
librean maita dezagun!

6 "Euskaldun" garenak gaude,
datorkigunaren bistan,
hilaren hemeretzia
ailegatzeko irrikan!
Xalbadorren Urepeldik
Korrika irten berritan,
hogeita ta hogeita batean
dugu gurean bixitan;
ortziralez Baztanen ta
larunbatez Bortziritan
ez dago aitzakirik ta
elkar gaitezen Korrikan!

izatea - artean - gara - ekitaldi - errealitatea - katean -
hamarkada - deialdi - apartean - gizartea - jada -
eskualdeari - bitartean - ematea - traba - dituenari

ERANTZUNAK

LAN eta LAN (4. or.):

1- B; 2- A; 3- B; 4- A; 5- A; 6- A; 7- A; 8- B

BOTA BERTSOA! (6. or.):

a) ematea; b) gizartea; c) errealitatea; d) izatea; e) hamarkada; f) jada; g) traba; h) gara;
i) dituenari; j) deialdi; k) ekitaldi; l) eskualdeari; m) artean; n) katean; o) apartean; p) bitartean

141. aleko sariketa erantzunak – Bitxiloreak - Lamiak (6. or.):

1- b; 2- a; 3- c; 4- c; 5- b; 6- a; 7- c; 8- c; 9- b; 10- c

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria:

Lesakako BEKO mintegian
sagardotegian
60 euroko erosketa

141. aleko irabazlea:

Josepa Etxenike Zubieta
Etxalarkoa

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzin; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak apirilaren 24a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. or.):

Nafarroako euskalgintza

- | | |
|-----------|------------|
| 1 - _____ | 6 - _____ |
| 2 - _____ | 7 - _____ |
| 3 - _____ | 8 - _____ |
| 4 - _____ | 9 - _____ |
| 5 - _____ | 10 - _____ |



KOMIKlik

Idi pareta UZTARRIAN



Behia HAUSNARREAN



Euskara HAUSNARTU,
euskara eta bizitza
UZTARTU!!

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Bortziriak eta Malerrekako
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK
eta Baztango Udala**



ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortzirietako IKA Euskaltegia. Arretxea 22 31770 Lesaka

Malerrekako IKA Euskaltegia. Rosa seminario 6, beheka, 31740 Doneztebe.

